

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abuztuaren 26tik 30erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia


Eurostatek egindako lehen kalkuluaren arabera, % 1koa da Euroguneko urte arteko inflazioa; uztaileko emaitza bera eta mailarik baxuena 2016ko azarotik. Herrialdeei begira, Alemaniako Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) urte arteko % 1,0 egin du gora abuztuan, % 1,2 Frantzian eta % 0,5 Italian.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: IFO ALEMANA



Datuaren analisia

Alemaniako Ikerketa Ekonomikoen Institutuak (IFO) jakinarazi zuen uztailen berrikusitako 95,3 puntuetatik 94,3 puntuetaraino jaitsi zela Alemaniako enpresen konfiantza-indizea, mailarik txikiena 2012ko azarotik. Halaber, Alemaniako enpresarien oraingo egoerari buruzko balorazioak okerrera egin du, 2014ko azarotik izan duen mailarik apaleneraino, 97,3 puntuetaraino jaitsi baita uztailera 99,6tik. Etorkizuneko aukerei dagokienez, enpresari alemaniarrek 2009ko ekainetik ez zirela hain ezkor agertzen (azpi-indizea 91,3ra jaitsi zen aurreko hileko 92,1 puntuetatik).

Adierazlearen azalpena

Enpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako jardura ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: BPGd

	Est. PIB 2º Trim	Diferencia	1ª Revisión
Total	2,10%	-0,10%	2,00%
Consumo privado	2,85%	0,25%	3,10%
Consumo público	0,85%	-0,08%	0,77%
Inversión	-0,14%	-0,06%	-0,20%
* No residencial	-0,08%	-0,01%	-0,09%
* Residencial	-0,06%	-0,05%	-0,11%
Inventarios	-0,86%	-0,05%	-0,91%
Sector Exterior	-0,65%	-0,07%	-0,72%

Datuaren analisia

Amerikako **ekonomia** % 2ko urteko erritmoan hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreikusitakoa baino hamarren bat gutxiago. Estatuko eta tokiko gobernuen gastuak, esportazioak eta inbentario pribatuarekin eta bizilekuarekin loturiko inbertsioen beheranzko berrikuspenak eragin zuen batik bat hazkundearen moteltzea, hein batean kontsumo pertsonalaren goranzko berrikuspenarekin orekatu zena.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Industria-ekoizpena % 1,3 hazi zen aurreko hilarekin alderatuta. 2018ko uztailaren aldearen, berriz, adierazleak % 1,7 egin zuen gora. Adierazlearen hazkundeari ekarpen handiena egin zioten industriak ibilgailuen fabrikazioa, industria kimikoa eta paperarena izan ziren. Aitzitik, hauexek izan ziren jaitsiera handienak izan zituzten sektoreak: kimiko organikoak, petrolioia, ikatza, makineria elektrikoa eta telekomunikazioen hornikuntza.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazle a	Aurreik.
09/02	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	49.8
09/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	--
09/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.0
09/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	43.6
09/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	47.0
09/02	Erresuma Batua	Markit, RU Saren PMI fabrikazioa	48.3
09/03	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	--
09/03	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	51.5
09/04	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
09/04	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	51.7
09/04	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	--
09/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	--
09/04	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	53.3
09/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
09/04	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.4
09/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	51.4
09/04	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.4
09/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	51.8
09/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	51.2
09/04	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	--
09/04	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	--
09/04	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$55.2b
09/04	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
09/05	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	143k
09/05	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
09/05	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
09/05	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
09/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
09/06	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	-% 4.1
09/06	Frantzia	Balantza komertziala	--
09/06	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.1
09/06	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 3.7

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSA:

Aste honetan, balantze positiboa mundu osoko burtsa-indizeetan. AEBen eta Txinaren arteko gerra komertziala, Italiako ezegonkortasun politikoa eta Brexita izan ziren merkatuen arreta bereganatu zuten alderdi nagusiak. Txinako Merkataritza Ministerioak gerra komertzialaren gaitzotzea gaitzetsi zuen, eta egoera baretzeko asmoa azaldu zuen, tirabirak konpontze aldera. Elkarrizketarako eskaintza horrek AEBen aurka errepresalia komertzial gehiagorik ez hartzeko erabakia barne hartzen du. Gainera, irailean negoziazioei berriro ekingo diela baieztatu zuten bi herrialdeek. Italian, bestalde, *Movimento 5 Stelle* eta demokraten alderdiak lortutako hasierako akordioak merkatuak baretu zituen. Izan ere, koalizio berriak jarrera fiskal zuhurragoa izatea espero da, Bruselarekin liskarrak ekidin eta hauteskunde berrien arriskua desagerraraziko duena. Giuseppe Conte izango litzateke berriz lehen ministroa; hala ere, oraindik erabakitzeke dago ministro taldearen eraketa eta bi alderdiek martxan jarriko dituzten politikak. Brexitari dagokionez, Boris Johnsonek parlamentuaren jarduna urriaren 14ra arte eteteko erabakia hartu zuen Isabel II.aren oniritziarekin. Bada, Komunen Ganberaren eteteak akordiorik gabeko Brexita galaraziko duen edozein ekimen martxan jartzeko denbora murrizten du, eta Europar Batasunetik akordiorik gabeko irteteko aukerak handitzen ditu.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.644,94	2,31	14,12
IBEX 35	8.812,90	1,89	3,20
DJ EURO STOXX 50	3.426,76	2,77	14,17
DJ STOXX 50	3.136,23	2,19	13,63
FTSE	7.207,18	1,58	7,12
S&P 500	2.926,46	2,79	16,74
Dow Jones	26.403,28	3,02	13,19
NASDAQ	7.962,88	2,72	20,01
NIKKEI 225	20.704,37	-0,03	3,45
MSCI GORAKORRAK (Lo)	55.658,94	1,35	4,19
MEXBOL	42.622,50	6,92	2,36
BOVESPA	101.134,60	3,55	15,07
SHANGHAI	3.023,71	-0,38	15,79
Errusia Rts Mosku	1.293,32	1,96	21,31

ERRENTA FINKOIA:

Europako gobernuen kurbek behera egin zuten. Brexitaren inguruko berriek eragindako ziurgabetasuna izan zen hein handi batean mugimendu horien erantzule. Horiek horrela, hamar urterako erreferentzia alemaniarak 2 op egin zituen atzera, -% 0,70eraino, eta Espainiako hamar urterako tasak 2 op, % 0,11raino. Arrisku-prima, beraz, 80 puntuetaraino jaitsi zen. Italiako gobernuaren kurba nabarmendu zen bereziki, hamar urterako tasak 32 op egin baitzituen atzera, gobernu berri bat eratzeko lortutako hasierako akordioaren aurrean. AEBetan, bestalde, hamar urterako erreferentziak 4 op egin zituen behera, % 1,50eraino. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa	
		Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,93	-0,04	-0,32
ESPAINIA 2 URTE	-0,56	-0,01	-0,32
AEB 2 URTE	1,50	-0,03	-0,98
ALEMANIA 10 URTE	-0,70	-0,02	-0,94
ESPAINIA 10 URTE	0,11	-0,03	-1,31
AEB 10 URTE	1,50	-0,04	-1,19
ALEMANIA 30 URTE	-0,18	-0,05	-1,05
ESPAINIA 30 URTE	0,99	-0,05	-1,62
AEB 30 URTE	1,96	-0,06	-1,05
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	48,41	-3,36	-39,96
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	251,48	-19,94	-102,20

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroak behera egin zuen gainerako dibisa nagusien aldean, Europako lehen ekonomiaren makalaldiaren lekuko diren Alemaniako datu makro (BPGd, IFO) kaskarrekin eraginda. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioak % 1,53 egin zuen gora, tentsio komertzialen barealdiagatik eta Estatu Batuetako petrolio gordinaren erreserbak aurreikusitakoa baino gehiago jaitsi zirelako. Urrearen balioak, bestetik, % 0,43 egin zuen atzera, 1520,30 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	Aldaketa Astean %	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,10	-1,36	-4,16
Yena / Euroa	116,87	-0,53	-7,02
Libera / Euroa	0,91	-0,08	0,85

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolioak (Brendt)	59,20	1,53	11,34
Urrea	1.520,30	-0,43	18,55

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.